BERGARAKO IKASTETXEETAN ADIKZIOEN PREBENTZIOA GARATZEKO PROGRAMAREN KONTRATAZIOA. **PLEGU TEKNIKOA**	***CONTRATACIÓN DEL PROGRAMA PARA EL DESARROLLO DE LA PREVENCIÓN DE ADICCIONES EN LOS CENTROS ESCOLARES DE BERGARA.*** ***PLIEGO TÉCNICO***
1.- KONTRATUAREN XEDEA Kontratuaren xedea da Bergarako ikastetxeetan adikzioen prebentzio programa garatzea	***1.- OBJETO DEL CONTRATO*** *El objetivo del contrato es desarrollar un programa de prevención de las adicciones en los centros escolares de Bergara*
2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK Kontratuak honako helburu hauek izango ditu: • Adikzioek, bai droga-mendekotasunek bai jokabide-adikzioek, eta bi horien aurrekari diren arrisku portaerek ere, pertsonen osasunean eta beraien ingurunean duten eraginaren inguruko sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzea. • Ikasleei jokabide osasungarriak eskuratzen lagunduko dizkieten gaitasunak, trebeziak eta tresnak ematea. • Osasuna, osotasunean ulertuz, osasun fisikoa, mentala eta soziala zaintzea sustatzea, bizitzarako ohitura osasungarriak bultzatuz. • Babes faktoreak hedatzea eta indartzea, drogen eta adikzioa sor dezaketen bestelako substantzien kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak agertzea eragozteko.	***2.- OBJETIVOS DEL SERVICIO*** *Los objetivos del contrato son los siguientes:* • *Incrementar la sensibilización y el conocimiento sobre el impacto de las adicciones, tanto de las drogodependencias como de las adicciones comportamentales, y de las conductas de riesgo precursoras de ambas, en la salud de las personas y en su entorno.* • *Proporcionar al alumnado, capacidades, habilidades y herramientas que favorezcan la adopción de conductas saludables.* • *Promover el cuidado de la salud, entendida en su conjunto, salud física, mental y social, favoreciendo hábitos saludables para la vida* • *Extender y fortalecer los factores de protección como inhibidores de los consumos problemáticos de drogas y otras sustancias con capacidad adictiva y de la aparición de conductas excesivas con riesgo de generar adicciones*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

• Irakasleen ezagutza areagotzea, substantzien adikzioen zein jokabide-adikzioen prebentzioan eta detekzioan. • Gurasoak edota legezko tutoreak sentsibilizatu, informatu eta orientatzea, seme-alabengan indartu ditzaten kontsumo eta arrisku-jokabideen aurrean babes faktoreak eta sustatu ditzaten jarrera osasungarriak. • Programaren esparruarekin lotura duten eta Udalak sustatzen dituen beste programa edota ekimen batzuekin elkarlanean aritzea.	*comportamentales.* *• Incrementar el conocimiento del profesorado en la prevención y detección de las adicciones a las sustancias y de las adicciones comportamentales.* *. Sensibilizar, informar y orientar a las personas progenitoras o tutores legales, para que refuercen en sus hijos e hijas factores de protección ante consumos y conductas de riesgo y promuevan conductas saludables.* *• Colaborar con otros programas y/o iniciativas relacionadas con el ámbito del programa que promueva el Ayuntamiento.*
3. HARTZAILEAK Zerbitzuaren hartzaile izango dira: Bergarako ikastetxeetako LH-ko 4. mailatik hasita, DBH osoko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Erdi eta Goi mailako 1. ikasturteko ikasleak; gurasoak edo legezko tutoreak; irakasleak eta bestelako langileak.	***3. PERSONAS DESTINATARIAS*** *Serán destinatarios del servicio: el alumnado de los centros escolares de Bergara a partir de LH4, ESO, y 1er. curso de Bachillerato, ciclo medio y superior de Formación Profesional; los padres, madres o tutores legales; el personal docente y demás personal.*
4. BURUTU BEHARREKO JARDUERAK **4.1. Beharren diagnostikoa** Ikasleekin burutuko diren tailerrak haien beharretara egokitzeko asmoz, tailerrak garatu aurretik, diagnostiko bat egingo da drogen kontsumoei, ausazko jokoari, apustuei, teknologia digitalaren erabilerari eta bizitzarako trebetasunei buruzkoa, betiere sexuaren, adinaren, ikasmailaren eta ikastetxearen arabera. Horretarako, lehenik eta behin, enpresa esleipendunak proposatu egingo ditu ikasleek bete beharreko	***4. ACTIVIDADES A REALIZAR*** ***4.1. Diagnóstico de necesidades*** *Con el fin de adecuar los talleres para el alumnado a sus necesidades, previamente al desarrollo de los mismos, se realizará un diagnóstico sobre el consumo de drogas, el juego de azar, las apuestas, utilización de la tecnología digital y las habilidades para la vida en función del sexo, la edad, el curso y el centro escolar.* *Para ello, en primer lugar, la empresa adjudicataria propondrá los cuestionarios y los cursos donde el*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

galdetegiak eta hauek pasatzeko ikasmailak, eta Udal Prebentzio teknikariarekin eta ikastetxeekin adostuko ditu. Behin datuak jasota, beharrak identifikatuko ditu eta gela eta ikasmaila bakoitzean lantzeko edukiak zehaztuko ditu. Era berean, irakasle zein guraso edo legezko tutoreek gai hauen inguruan izan ditzaketen kezka eta beharrak zeintzuk diren ezagutze aldera, haiek betetzeko galdetegiak ere prestatuko ditu, beraiekin egingo diren saioak ere beraien premietara egokitzeko. Ikasle, irakasle zein guraso edo tutoreen galdetegietatik ateratako datuak eta ondorioak txosten batean jasota, Prebentzio teknikariarekin eta ikastetxeekin partekatuko ditu.	*alumnado deberá cumplimentarlos, y los consensuará con la Técnica de Prevención Municipal y los centros escolares. Una vez recogidos los datos, identificará las necesidades y definirá los contenidos a trabajar en cada aula y curso.* *Asimismo, con el fin de conocer las inquietudes y necesidades del profesorado y de los padres, madres o tutores legales en estos temas, y adecuar las sesiones de los mismos a dichas necesidades, elaborará cuestionarios para su cumplimentación.* *Los datos y las conclusiones extraídas de los cuestionarios del alumnado, profesorado y padres/madres o tutores, recogidos en un informe, los compartirá con la técnica de Prevención y con los centros educativos,*
4.2. Ikasleekin esku-hartzea Enpresa esleipendunak ikasturtean zehar prebentzio tailerrak antolatu eta garatu beharko ditu, LH-ko 4. mailatik hasita, DBH osoko, eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako Erdi eta Goi mailako 1. ikasturteko ikasleei bideratuta. Horretarako, ikasmaila bakoitzarentzat bereziki diseinatutako edukien proposamena egin beharko du, kontuan izanik honako edukiak landu beharko direla: • Bizitzarako trebetasunak: autoestimua, enpatia, emozioen kudeaketa, tentsioak eta estresa maneiatzea, komunikazioa, pertsonen arteko harremanak, gatazken kudeaketa, autoezagutza, erabakiak hartzea, erresilientzia…	***4.2. Intervención con el alumnado*** *La empresa adjudicataria deberá organizar y desarrollar durante el curso talleres de prevención dirigidos al alumnado a partir de LH4., ESO, y 1. curso de Bachillerato, y de ciclo medio y superior de Formación Profesional.* *Para ello, deberá elaborar una propuesta de contenidos diseñado específicamente para cada curso, teniendo en cuenta que se deberán trabajar los siguientes contenidos:* *• Habilidades para la vida: autoestima, empatía, gestión emocional, manejo de tensiones y estrés, comunicación, relaciones interpersonales, gestión de conflictos, autoconocimiento, toma de decisiones, resiliencia…*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

• Drogen kontsumoen, ausazko jokoen, apustuen eta teknologia digitalaren erabilera ezegokiaren ondorioak ezagutzea eta horien aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsuak sustatzea. • Osasun mentala zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzea eta hura babesten duten faktoreen inguruan hausnartzea. Ikasgela bakoitzean gehienez 6 orduko iraupena duen tailer bat garatuko da. Eta saioak egokitu egingo dira ikastetxeko ordutegira, ikasmaila bakoitzera eta ikasgela bakoitzeko errealitatera.	*• Conocer las consecuencias de los consumos de drogas, de los juegos de azar, apuestas y de la utilización no adecuada de la tecnología digital, y fomentar la capacidad de decisión y actitudes responsables ante los mismos* *• Sensibilizar sobre la importancia del cuidado de la salud mental y reflexionar sobre los factores que la protegen.* *Se desarrollará un taller con una duración máxima de 6 horas por aula. Y se adecuarán las sesiones al horario del centro, a cada curso y a la realidad de cada clase.*
4.3 Irakasleekin esku-hartzea Ikasleekin prebentzio tailerrak garatu ondoren, ikastetxe bakoitzean irakasleei zuzendutako ordu eta erdiko saio bat egingo da ikasmaila edo eskola-ziklo bakoitzean, tailerretan ateratako ondorio nagusien berri emateko, kezkak argitzeko eta prebentziorako zenbait irizpide emateko. Horrez gain, enpresa esleipendunak, ikasturtean zehar aholkularitza eskainiko die hala eskatzen duten ikastetxeei honako gaien inguruan: • Bizitzarako trebetasunak sustatzea eta ohitura osasungarriak bultzatzea. • Ikasleekin landutako gaien inguruan gerta daitezkeen egoerak. • Osasunerako lagungarriak diren neurriak hartu eta garatzeko ikastetxeetako antolakuntzan, funtzionamenduan, eta hezkuntza eta elkarbizitza proiektuetan.	***4.3. Intervención con el profesorado*** *Una vez desarrollados los talleres de prevención con el alumnado, en cada centro se realizará una sesión de una hora y media dirigida al profesorado en cada curso o ciclo escolar, para dar a conocer las principales conclusiones obtenidas en los talleres, aclarar dudas y aportar algunos criterios de prevención.* *Además, la empresa adjudicataria asesorará a lo largo del curso a los centros que lo soliciten en torno a los siguientes temas:* *• Promoción de habilidades para la vida y fomento de hábitos saludables.* *• Situaciones que se puedan dar en torno a los temas tratados con el alumnado.* *• Adopción y desarrollo de medidas de apoyo a la salud en la organización y funcionamiento de los centros escolares y en los proyectos*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

• Ikasleen artean drogen kontsumoa zein adikzio-jokabideak eragin ditzaketen arrisku-portaerak hauteman eta prebentzio esku-hartzeak burutzea. • Osasun mentala sendotu eta babesten duten gaiak. Aholkularitza ikastetxeen eskaeraren arabera emango da, telefonoz, online edo modu presentzialean.	*educativos y de convivencia.* *• Detección entre el alumnado de comportamientos de riesgo que pueden derivar tanto en consumo de drogas como en conductas adictivas y realizar intervenciones preventivas.* *• Materias que fortalecen y protegen la salud mental.* *El asesoramiento se prestará en función de las demandas de los centros, por teléfono, online o de forma presencial.*
4.4. Gurasoekin eta legezko tutoreekin esku-hartzea Ikasleen tailerrak amaitu ondoren, guraso eta legezko tutoreei zuzendutako saioak antolatuko dira, kontsumo eta arrisku jokabideen aurrean familiek seme-alabengan babes faktoreak eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzeko duten zeregina sendotzeko. Saio hauetan, gurasoei eta legezko tutoreei ikasleekin landutako gaien inguruan informazioa emango zaie eta haiek izan ditzaketen kezkak argitzeko tartea eskainiko da. Bestalde, seme-alabekin kezkatuta dauden guraso edo tutoreek –drogen kontsumo goiztiarra dela edo adikzio-jokabideak eragin ditzaketen arrisku portaerak direla– aholkularitza eta orientazioa jasotzeko aukera izango dute, bakarka edo/eta taldean.	***4.4. Intervención con padres, madres y tutores legales*** *Una vez finalizados los talleres con el alumnado, se organizarán sesiones para padres/madres y tutores legales, para reforzar el papel de las familias en la promoción de factores de protección y actitudes y hábitos saludables en los hijos e hijas ante conductas de consumo y riesgo.* *En estas sesiones se informará a los padres, madres y tutores legales sobre los temas tratados con el alumnado y se ofrecerá un espacio para aclarar sus posibles inquietudes.* *Por otro lado, los padres, madres o tutores que estén preocupados por los consumos precoces de drogas o por los comportamientos de riesgo que pueden dar lugar a conductas adictivas, podrán recibir asesoramiento y orientación individual y/o de grupo.*
5. KOORDINAZIOA **Koordinazioari dagokionez, honako**	***5. COORDINACIÓN*** ***En cuanto a la coordinación, se***

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

hauek egin beharko dira: • Udaleko Prebentzio Teknikariarekin etengabeko koordinazioa mantendu. • Programa antolatzeko eta garatzeko ikastetxeekin beharrezko koordinazioa mantendu. • Ikastetxeekin eta Prebentzio teknikariarekin programaren jarraipenerako bilerak egin; besteak beste, ikasturte hasieran programa eta lan-plana azaltzeko, eta amaieran, berriz, balorazioa egin eta hobekuntzak proposatzeko. • Herri mailako beste prebentzio programa batzuekin edo esku-hartzeekin sare-erako lanean aritu.	***deberá:*** *• Mantener coordinación permanente con la técnica municipal de Prevención.* *• Mantener la coordinación necesaria con los centros educativos para la organización y desarrollo del programa.* *• Realizar reuniones de seguimiento del programa con los centros y con la técnica de Prevención, entre otros, para presentar el programa y el plan de trabajo al inicio del curso, y para realizar la valoración y proponer mejoras al final del curso.* *• Trabajar en red con otros programas o intervenciones preventivas de ámbito local.*
6. EBALUAZIOA Ebaluazioa proiektuaren hartzaile guztiekin (ikasleak, irakasleak, gurasoak eta tutoreak) egingo da, burututako jarduera eta esku-hartze ezberdinen eragina eta hartzaileen asebetetze-maila ebaluatuz. Ikasturte amaieran berau Udal Prebentzio teknikariarekin eta ikastetxeekin partekatuko da.	***6. EVALUACIÓN*** *La evaluación se realizará con todos los destinatarios del proyecto (alumnado, profesorado, padres/madres y tutores), y se evaluará el impacto de las diferentes actividades e intervenciones realizadas y el grado de satisfacción de las personas destinatarias. Al final del curso, se compartirá con la técnica de Prevención Municipal y con los centros escolares.*
7.- GIZA BALIABIDEAK ETA DEDIKAZIOA **7.1. Giza baliabideak** Zerbitzuan jardungo duten langile guztiek honako baldintzak bete beharko dituzte: • Profesionalek **giza eta gizarte**	***7.- RECURSOS HUMANOS Y DEDICACIÓN*** ***7.1. Recursos humanos*** *El personal adscrito al servicio deberá cumplir con los siguientes requisitos:* *• Las personas profesionales deberán poseer una titulación del*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

zientzien eremuko titulazio bat izan beharko dute (gizarte hezkuntza, gizarte lana, psikologia, psikopedagogia, pedagogia…).	*ámbito de las **ciencias humanas y sociales** (educación social, trabajo social, psicología, psicopedagogía, pedagogía…).*
• Gutxienez ikasturte bateko esperientzia adikzioen prebentzioarekin lotutako zereginetan.	*• Experiencia de al menos un curso escolar en tareas relacionadas con la prevención de adicciones.*
• Euskararen C1 maila (EGA) egiaztatu beharko dute. Ikus hizkuntza-irizpideak (9. atala).	*• Deberán acreditar el nivel de euskera C1 (EGA). Ver criterios lingüísticos (apartado 9).*
• Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute zerbitzuetako langile guztiek.	*• En cumplimiento de lo establecido por la Ley 26/2015 de 28 de julio de 2015 sobre las modificaciones del sistema de protección a la infancia y adolescencia, todas las personas que trabajen en los servicios deberán presentar el certificado que acredita la no inscripción en el Registro Central de Delincuentes Sexuales*
Enpresa adjudikaziodunak bere giza baliabideen bidez bermatuko du lantaldearen arduradun bat egongo dela eta horrek aholkularitza-lanak egingo ditu eta programaren koordinazioaz eta gainbegiratze teknikoaz arduratuko da, honako betekizun hauekin:	*La empresa adjudicataria garantizará, a través de sus recursos humanos, la figura de una persona responsable del equipo, quien realizará tareas de asesoramiento y se encargará de la coordinación y la supervisión técnica, con las siguientes funciones:*
- Ikasturteko lan-plana prestatu eta azaltzea eta ikastetxeekin egutegia eta ordutegia zehaztea.	*- Elaborar y explicar el plan de trabajo del curso y concretar el calendario y el horario con los centros.*
- Programatutako jarduera eta esku-hartze guztiak gainbegiratzea.	*- Supervisión de todas las actividades e intervenciones programadas.*
- Zerbitzuaren funtzionamendua aztertu eta beharrezkoak ikusten diren hobekuntzak proposatzea.	*- Analizar el funcionamiento del servicio y proponer las mejoras que se consideren necesarias.*
- Udal Prebentzio teknikariarekin eta ikastetxeekin koordinatzea.	*- Coordinarse con la técnica de Prevención del Ayuntamiento y con los centros escolares.*
- Egoerak hala eskatzen duenean, herrian beste prebentzio proiektu edo esku-hartzeak garatzen dituzten erakunde eta gizarte eragileekin koordinatzea.	*- Coordinarse con las instituciones y agentes sociales que desarrollen otros proyectos o intervenciones preventivas en la localidad, cuando la situación lo requiera.*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

Bergarako Udala

7.2. Dedikazioa

Programa gehienez 82 ikasgeletan aurrera eramango da.

Jarduera	**Gehieneko ordu-kopurua**
Ikasleekin esku-hartzeak	492 ordu (6 ordu ikasgelako)
Irakasleekin esku-hartzea	66 ordu
Guraso eta legezko tutoreekin esku-hartzea	54 ordu
GUZTIRA	612 ordu

Taulan jasotako orduak kontratuaren eta egindako lanaren arabera ordainduko dira; prestaketa-lanak ez dira aparte zerrendatu ez direlako aparte ordainduko. Ulertzen da adjudikazio-prezioaren barruan jardueraren garapenak dakartzan kontzeptu guztiak daudela: giza baliabideak, material didaktikoak, prestaketa-lanak, koordinazio-lanak, ikastetxeekiko harremanak eta bilerak, guraso eta irakasleekiko bilerak, material suntsigarria, fotokopiak, garraioa...

7.2.Dedicación

El programa se llevará a cabo como máximo en 82 aulas.

Actividad	***Número de horas máximo***
Intervenciones con el alumnado	*492 horas* *(6 horas por aula)*
Intervención con profesorado	*66 horas*
Intervención con padres, madres, y tutores legales	*54 horas*
TOTAL	*612 horas*

Las horas recogidas en la tabla se abonarán en función del contrato y del trabajo realizado; los trabajos de preparación no se han indicado porque no se abonarán aparte. Se entiende que el precio de adjudicación incluye todos los conceptos que conlleva el desarrollo de la actividad: recursos humanos, materiales didácticos, trabajos de preparación, coordinación, contactos y reuniones con centros educativos, reuniones con madres-padres y profesorado, material fungible, fotocopias, transporte...

8.- JUSTIFIKAZIOA

8.- JUSTIFICACIÓN

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

Ikasturte amaieran, garatutako lanaren memoria aurkeztu beharko da; bertan jaso beharko dira ikasturte hasieran egindako diagnostikoa, ikasle, irakasle eta gurasoekin edo legezko tutoreekin egindako esku-hartzeak, eta berauek programarekiko egin duten balorazioa.	*Al final del curso, se deberá presentar la memoria del trabajo desarrollado, que recoja el diagnóstico realizado a inicio de curso, las intervenciones que se han hecho con el alumnado, el profesorado y padres, madres o tutores legales, así como su valoración respecto al programa.*
9.- KONTRATUAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK. Kontratazio honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan eta Bergarako Udalbatzarrak 2023-05-22an onartutako euskararen erabilera normalizatzeko planean jasotakoa. 9. 1. Zerbitzua emango duten langileen hizkuntza-gaitasuna Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte euskarazko gaitasunei dagokienez. Hori dela-eta, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, jardueran parte hartuko duten lantalde teknikoko partaideek euskarazko C1 gaitasun-maila (Europako Erreferentzia Markoaren araberakoa) egiaztatu beharko dute. Eskaintzarik onuragarriena aitortu, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun baliodunen barruan, enpresak egiaztatu egin beharko du zerbitzua emango duten pertsonek	***9.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS DEL CONTRATO*** *Esta contratación se halla sujeta obligatoriamente al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6 y regulado por la Ley Básica 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del Uso del Euskera, así como por la normativa que la desarrolla, entre otros el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, y el contenido del Plan para la normalización del uso del euskera que fue aprobado por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Bergara el 22-05-2023.* *9. 1. Capacitación lingüística del personal que vaya a prestar el servicio* *Dado que deberán mantener relación con el Ayuntamiento de Bergara y con terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deberán garantizar, en lo que a su competencia lingüística en euskera se refiere, unas condiciones similares a las que sean exigibles al Ayuntamiento de Bergara.* *Por ello, teniendo en cuenta las características de los servicios a prestar, los miembros del equipo técnico de trabajo que participen en la actividad deberán acreditar en cuanto al euskera el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia.* *Una vez declarada la oferta más ventajosa, en el plazo de 10 días hábiles a partir del día siguiente al de su notificación, la empresa deberá acreditar que las personas que prestarán el*

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

badutela eskatutako euskara maila.

Euskara gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako euskara-maila dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea, edo bestela
- Bergarako Udalak (Udal Euskaltegiarekin lankidetzan) erabakitako froga egitea.

9.2.- Zerbitzu-hizkuntza

Enpresak zerbitzuaren eginkizunak burutzeko Udalarekin eta ikastetxeekin dituen harremanak (bilerak, txostenak…) euskaraz bideratuko dira.

Ikasle, hezitzaile eta irakasleekin eman beharreko saioak ere euskaraz izango dira oro har eta, betiere, euskararen kalitatea bermatu beharko da. Ikastetxeren baten talderen batekin gazteleraz aritzeko premia sortuko balitz horri erantzun beharko dio enpresa adjudikazio-hartzaileak. Kasu berezi horiek ikastetxearekin eta kontratazioaz arduratzen den udal teknikariarekin aztertuko dira, nola arituko diren elkarrekin aztertzeko.

Gurasoekin egin beharreko saioak antolatzeko orduan, izena emateko orrian galdetuko da “euskaraz ulertzen duzu?” eta horren arabera antolatuko dira taldeak. Aurrez izena ematen ez den kasuetan, aurrez udal teknikariarekin eta ikastetxearekin aztertuko dira euskararen erabilera bermatzeko baliabideak eta moduak. Euskara ulertzen ez dutenak dauden kasuetan saio bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz antolatu ahalko dira. Kasu berezi horiek ikastetxearekin eta kontratazioaz arduratzen den udal teknikariarekin aztertuko dira, nola arituko diren elkarrekin aztertzeko.

Ikastetxeetatik kanpo, hezkuntza ez

servicio cuentan con el nivel de euskera requerido.

La acreditación de la competencia de euskera podrá hacerse de las dos maneras siguientes:

- *Presentación de documento que acredite que la(s) persona(s) que vaya(n) a prestar el servicio alcanza(n) el nivel de euskera exigido, o bien*
- *Realizar la prueba que determine el Ayuntamiento de Bergara (en colaboración con el Euskaltegi Municipal).*

9.2.- Idioma del servicio

Las relaciones de la empresa con el ayuntamiento y con los centros educativos para el desarrollo de las funciones del servicio (reuniones, informes...) se realizarán en euskera.

Las sesiones a impartir con el alumnado, el personal educador y el profesorado serán también en euskera con carácter general, debiendo garantizarse siempre la calidad del euskera. En caso de que en algún grupo de algún centro se necesite utilizar el castellano, la empresa adjudicataria deberá dar respuesta a dicha necesidad. Estos casos especiales se analizarán con el centro y con el/la técnico/a municipal responsable de la contratación a fin de estudiar conjuntamente el modo de actuación.

A la hora de organizar las sesiones con madres-padres, en la hoja de inscripción se preguntará "¿Entiendes el euskera?" y en función de ello se organizaran los grupos. En caso de no haber preinscripción, se estudiarán con anterioridad con la/el técnica/o municipal y con el centro educativo los recursos y formas para garantizar el uso del euskera. Cuando haya personas que no entienden el euskera se podrá organizar una sesión en euskera y otra en castellano. Estos casos especiales se analizarán con el centro y con el/la técnico/a municipal

ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26

formal edo komunitatean egingo diren esku-hartzeetan, ahozko harremanetan lehen hitzak beti euskaraz izango dira eta jarrera proaktiboa izango da; hau da, mezu-hartzaileak euskara ulertzen badu euskaraz jarraitzeko gonbita egingo zaio; dena den, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira. Enpresa adjudikazio-hartzaileak herritarrei begirako idatzirik egin behar badu (oharrak, aholkuak, apunteak…) udalaren hizkuntza-irizpideak jarraitu beharko dira. Hori dela-eta, euskara ulertzen dutenei euskara hutsean eskainiko zaie eta, bestela, euskaraz eta gaztelaniaz (kasu honetan euskarari lehentasuna emanda). Eta betiere, euskararen kalitatea (zuzentasuna, ulergarritasuna...) bermatu beharko da. <u>9.3. Hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena</u> Kontratazioaren arduraduna den udal zerbitzuak emango dizkio enpresari hizkuntza-irizpideen inguruko azalpenak —Euskara Zerbitzuarekin adostutako ildoei jarraituz— eta enpresako arduradunak azalduko dizkie langileei. Bestalde, enpresako arduradunak hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren inguruko jarraipena ere egingo du eta horren berri emango dio Udalari, dagozkion bileretan edo txostenetan.	*responsable de la contratación a fin de estudiar conjuntamente el modo de actuación.* *Fuera de los centros educativos, en las intervenciones que se desarrollen en la educación no formal o en la comunidad, las primeras palabras serán siempre en euskera, con una actitud proactiva; es decir, si la persona receptora entiende euskera se le invitará a seguir en dicha lengua, garantizándose en todo caso los derechos lingüísticos de la ciudadanía.* *Para la elaboración de escritos dirigidos a la ciudadanía (notas, consejos, apuntes...) por parte de la empresa adjudicataria, se deberán seguir los criterios lingüísticos municipales.* *Por ello, a quienes entiendan euskera se les enviará solamente en euskera, y al resto en euskera y castellano (dando preferencia al euskera), debiendo siempre garantizar la calidad del euskera (corrección, comprensión...).* *<u>9.3. Seguimiento del grado de cumplimiento de los criterios lingüísticos</u>* *El servicio municipal responsable de la contratación informará a la empresa sobre los criterios lingüísticos, siguiendo las directrices acordadas con el Servicio de Euskera, y la persona responsable de la empresa será quien los exponga al personal trabajador.* *Por otro lado, la persona responsable de la empresa también realizará un seguimiento del cumplimiento de los criterios lingüísticos e informará de ello al ayuntamiento en las reuniones o informes correspondientes.*

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Prebentziorako teknikaria

EKS | CSV: ESKUd75b0652-aa3e-43ee-8aab-e5efba6bca26
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410